

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bittori Zamora Arrillaga

*Donostia,
Gipuzkoa
(1930-2015)*

Aurkibidea



Biografia



Igeldoko Lekueder baserrian jaioa. Jatetxea zuten etxean, eta bertan egin du lana umetatik; orain hotela dute. Gurasoak Buenavistakoak zituen. Aitak "guardavinos" lana ere egiten zuen, Bretxan. Lau senide ziren, bi neska eta bi mutil. Ahizpa eta biak Antiguara joan ziren eskolara. Ez zuten ikasketekin jarraitu, jatetxean beti zutelako lana. Bittori mahaiaik zerbitzatzen ibiltzen zen normalean eta ahizpa sukaldean; Maria Luisa ere elkarrizketan egon da (eskuinekoa).

Zintak

DON-132

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-08-18
- **Iraupena:** 99 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Jatetxea; aitaren lana: "guardavinos"

- **Erref:** DON-132/002
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:01:28. **Bukatu:** 00:04:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Muitza izeneko baserria nola galdu zen. Polbuetxe deitzen zioten etxea. Jatetxea zuten, animalia gutxi izaten zituzten. Aitak udal arbitrioetan egiten zuen lana. Fielato.

2. Aita "guardavinos" lanetan

- **Erref:** DON-132/004

- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:04:32. **Bukatu:** 00:05:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Fielato hori udaleko kontua zen; txandatu egiten ziren langileak. "Guardavinos". Bretxan ere egon zen aita. Uniformea nolakoa zen.

Transkripzioa

- Aiuntamentuko gauza zan.
 - Baiña ze egoten zan, pertsona bat ala...?
 - Pertsona bat, bakarra. Eta beak txandatu iten zian: batzutan aitai tokatzen zitzaiyon, beste batian beste bati. "En fin", zeak, "los guardavinos" deitzen zitzaiyen, "guardavinos". Geo gure aita denbora askuan egondu zan bretxan. Han arrandegiya zan Bretxan, eta han'e berdin: han bakizu, oain dana kanbiatu in da, baiño etortzen zan armadoriak asko, arraiya ta ekartzen zuten, eta hayen inpuestuak eta hoik denak hayek kobratzen zuten. Eta han eondu zan denbora askuan nere aita.
 - Eta uniformerik edo erabiltzen zuten?
 - Bai, bai, bai, bai, bai.
 - Nolakua?
 - Ba, grixia, hemen holako botoi doratuk, "SS" jartzen zun, ez? Bai, "SS" uste det jartzen zun.
 - Ta txapelik edo?
 - Baita're, baita're, sonbreruk edo. Bueno, ez dakit oain zenek ematen dun holako moduko txapela. Dena kanbiatu da ta. Bereziya zan.

3. Aitak arraina zestoan; arrain saltzaileak

- **Erref:** DON-132/006
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:06:06. **Bukatu:** 00:09:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Udal langileak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Aitak udal zergak kobratzen zituen, esne litroko. Zestoan kafesnea eramaten zuen aitak, gosaltzeko. Arraina ekartzen zuen bueltan. Arrain saltzaileak.

4. Buenavistako apopiloak; jatetxea; eskola

- **Erref:** DON-132/008
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:10:19. **Bukatu:** 00:12:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Apopiloak zituzten Buenavistan (aita bertakoa zen), harrobietako langileak. Leku Eder jatetxean ama egoten zen sukaldean eta aita mostradorean. Lau senide ziren. Bi mutilek merkataritza ikasketak egin zituzten. Neskek ez. Eskolan Antiguan ibili ziren. Maistrak. Erdaraz.

5. Eskolako kontuak

- **Erref:** DON-132/010
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:12:59. **Bukatu:** 00:15:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

<p>Eskola. Maistretako batek makilarekin jotzen zuen. Zorrotzak ziren. Bide zaharretik joaten ziren; Marbilko bidea. Autobus gutxi zeuden. Etxera bazkaltzera. Neskamea ere bazuten.</p>

6. Gazteak arrocketara; sagardoa egiten

- **Erref:** DON-132/011
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:15:38. **Bukatu:** 00:17:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Jatetxea nolakoa zen. Arroketara joateko ohitura zuten gazteek, Tximistarrira. Edalontziren bat hautsiz gero, aitak errieta. "Bale"ak (txartelak) egin zituzten, jendeak botilak bueltan ekartzeko. Sagardoa egiten zuten. Taberna noiz itxi zuten.</p>

7. Apopiloak etxean; Landin familia

- **Erref:** DON-132/013
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:18:30. **Bukatu:** 00:21:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

Apopiloren bat beti izan zuten etxean. Nafarrak. Urarentzako bideak egiten ibili ziren. Landin abizeneko familia ere etxean bizi izan zen; gerra garaian joan ziren, maletak bertan utzita. Sabino Aranaren koadroa.

8. Gerra garaia Igeldon

- **Erref:** DON-132/014
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:21:36. **Bukatu:** 00:23:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra garaia Igeldon. Ez ziren inora joan. Bonba bat jarri ote zuten dorreetako batean. Osaba kamineroa hildako bat lurperatzera behartu zuten, faroaren inguruan.

9. Igeldoko eta Antiguako familia abertzaleak

- **Erref:** DON-132/017
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:24:52. **Bukatu:** 00:26:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Ondarretako kartzelan egon ziren igeldotarrak. Antiguako azurzatarak. Radio San Sebastián geldiarazi eta "Gora Euskadi askatuta" oihukatu zuen haietako batek; erbestera joan zen gero.</p>

10. Umetako jostaketak

- **Erref:** DON-132/020
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:27:31. **Bukatu:** 00:30:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Beti lanean, gutxi jolasten zuten. Txingoka, sokasaltoan. Amarekin gutxi egoten ziren. Anaiak siestara eramaten zituen, eta imintzioak egiten zizkien eskuekin. Buleketan. Kikilibiotan.

11. Zilarrezko txanponak ezkututzen

- **Erref:** DON-132/022
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:30:18. **Bukatu:** 00:33:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Putetxeak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Zilarrezko txanponak kentzen zituen Poliziak. Igandean ateratako diruak. Ezkutalekua Markoxen mendian, baratzean. Bilatu ezinik gero. Gazte batek aurkitu zituen eta dirua berak gastatu zuen, neskatan.

12. Villa Maria Luisa emakume etxea

- **Erref:** DON-132/023
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:33:25. **Bukatu:** 00:35:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Aisia » Taberna giroa » Putetxeak

Laburpena:

Villa Maria Luisa emakume etxea non zegoen; euskaldunak ere baziren. Inprenta zegoen Dacha Blanca etxean. Putetxea.

13. Tabernako giroa; bertsolariak

- **Erref:** DON-132/024
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:35:47. **Bukatu:** 00:37:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Emakume taldeak joaten ziren tabernara, sagardoa hartu eta arroketa joateko. Bertso-saioak antolatzen zituen anaiak. Zepai, Uztapide... Zepaik kontatutako anekdota. Balkoitik kantatzen zuten.</p>

14. Igeldoko emakumea lanean, gizona tabernan

- **Erref:** DON-132/025
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:37:55. **Bukatu:** 00:41:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Igeldoko emakume baserriarren bizimodua. Ume asko izaten zituzten. Astoekin jaisten ziren Donostiara, eta gobara egiten zuten iturrian. Bezperan

beratzen edukitzen zituzten maindireak. Ama Polbuetxeko iturrira joaten zen arropa garbitzera. Gizasemeak tabernan.

15. Etxean egindako limonada; lantegiak eta harrobiak

- **Erref:** DON-132/030
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:46:30. **Bukatu:** 00:50:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Tabernan ardoa, sagardoa, garagardoa... edaten zituzten, eta limoi-ura, etxean egina. Igeldoko jende asko zebilen Antiguan, El Leon, Schuchard eta Lizarriturri lanean. Harrobiak eta nagusiak. Harrobiko gaitza. Igeldoko harriaren erabilera.

16. Anaiak Igeldoko tiro-pitxoian

- **Erref:** DON-132/033
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:51:37. **Bukatu:** 00:52:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Anaiak tiro-pitxoian lanean, udan. Dirudunak joaten ziren hara. Apustuak egiten zituzten. Hildako usoak biltzea zen beraien lana. Berak bazkaria eramaten zien anaiei.

17. Tabernako lanak eta janariak

- **Erref:** DON-132/035
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:53:06. **Bukatu:** 00:55:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Sukaldeko lanak eta garbitasuna, tabernan. Igandetan ere lanean. Oraingo gazteei buruzko iritzia. Prestatzen zituzten platerak. Arroz frijitua. Asteburuetan ibiltzen zen jende asko. San Ferminetatik estropadak bitarte.

Transkripzioa

- Ta batez ere garbitasuna ta fregaderan atera gabe ta mostradorian ta... Gure aitak esaten zigun hemen ez dakazuten igande bat e ateratzeiken e! Eta hor eoten giñan ixil-ixilik. Ez dakit hainbesteañooko pena dakaten e! Ez dakat penik ze oingo gaztiak denetatik dakate, ta zoriontsu daude? Ez dakit. Ez dakit holako zoriontsu dauden, baiño bueno hola ohi gea ta ya esta.
- Ze preparatzen zenuten? Hemen ze jan eta eman ziran orduan?
- Bueno, ba, ba... potaje gauza, zopa, potaje gauza ta kaxuelak.
- Kaxuelak?
- Bai. Txipiroyak e... tripakik... Txipiroyak asko.
- Zenbat ordu garbitzen?
- Zenbat txipiroi garbitzen gendun! Bueno... Ta tripakik eta haragiya saltsan ta gisauba ta... Holako gauzak.
- Ta bakallua ez?
- Bakallua ere bai. Bueno holako gauzak. Gero, arroz prejitu asko eman izandu hemen patata prejitukin. Eta geo, piper gorri batzukin hola. Kroketak e bastante. Eta ensaladak. Ensaladak e asko.
- Ensaladak ika... izugarri. Ensalada... batzako ensalada.
- Ensaladak izugarri. Ta geo, etxian iten gendun flana ta...
- Hona nor etortzen zan hona? Aste... aste barrua ere bai langilliak eta hola?
- Ez, gehiyo asteburun e.
- Asteburuetan.
- Hille hau izaten zan. Nik esatet Igeldo Donostiko e... udara ez zala /etzala/ hainbesteñoqua. Jendia hasten zitzaizun San Fermin aldetik eta e... regatak bukatu arte. Ya, gehiyo ya... bakoitzak bere lanetan eta hainbeste jende kanpotik ez zan /etzan/ etortzen.
- Ez.
- Ez, ez.
- Hemen bertako jendia etortzen zan gehiyo jatetxera?
- Bai.
- Ingurukua?
- Ingurukua, baiño... asteburun edo hola e. Larunbata, igandia... Hemen Antigua aldetik...
- Ze zan hau oso jatetxe dotoria?
- Ez, etxe... oso etxekua. Oso...
- Etxekua.
- Bai... Oain e askok esaten, galdetzen digue... Gaur e bi emakume hor [...] "pero si esto era la Casa Balentin".

18. Jatetxeko kontuak: mahaiak, sagardoa

- **Erref:** DON-132/037
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:56:17. **Bukatu:** 00:59:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Valentin jatetxea nolakoa zen. Harrizko mahaiak. Egurrezko mahaiak

ateratzen zituzten. Mostradorea jartzen zuten kanpoan. Lehengusuak laguntzen, asteburuetan. Gehiena zerbitzen ibili da bera. Upelak garbitzeko, barrura sartuta. Sagardoa egiten.</p>

19. Arroketara lapa bila, saltzeko

- **Erref:** DON-132/040
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:00:20. **Bukatu:** 01:01:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Ez ziren arroketara lapa bila joaten, baina igeldotar asko bai. Lanpernak. Arriskutsua zen.</p>

Transkripzioa

- Lapa billa ta...
- Ez, ez, ez...
- Ez gendun denboaik izaten.
- Baña Igeldon jende asko juten zan...
- Bai.
- Lapak eta...
- Bai, bai, bai... Batez ere... esan dizut, ba, este... batez ere emakunioik, hainbeste seme-alaba ta zeoze jatena nahi eta haiek e juten zian arroketa edo bere anayak edo bere norbaitzuk behintzat, ba, o... zeozer harrapatzea edo lapak edo zer dia bestiak?
- Olarrua.
- Olarruba ta beste zer dia hoik?
- Lanpernak?
- Lanpernak e bai zeatik hoik asko pagatzen dia, zian ordun. Eta bueno, ba, horrekin diru pixkat ateratzen zuten, eta diru horrekin beste zeozer ekartzen zuten kaletik eta...
- [...] arriskutsua zan ezta? Lanperna...
- Oso, oso, oso, oso, oso. Oso arriskutsua e... baño...
- Jendia baita re... Jendia arroketa ez?
- Bai, bai...
- Hil.
- Igendon bastante hil dia holaxe junda. Bai, bai.
- Baña beharra daonian, ba...
- A, klaro.

20. Izebarekin Igeldoko festetara; dantza lotua debekatuta

- **Erref:** DON-132/041
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 01:01:28. **Bukatu:** 01:05:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Igeldoko festetara joaten ziren, baina ez jai egunetan. Santixabel egunean izeba batekin joaten ziren. Dantza lotua bekatua zen. Bi apaiz zituzten etxean. Ama ere zorrotza zen. Sanpedroetan dantzan. Mariaren alaben kongregazioa. Apaizak esaten ziena.</p>

21. Infernua eta bekatua

- **Erref:** DON-132/042
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:05:17. **Bukatu:** 01:06:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Misioak. Frantziskotarrak. Infernua eta bekatua. Jesuitetara joaten zen aita misioetara; seme apaizak esaten ziona.

Transkripzioa

- Eta misiyuak ere izaten ziran, ezta?
- Misiyuak ere bai, "ya lo creo", eta gaiñea oso, oso... Franziskanuak etortzen zian. "Menudos"... Txorutzen egoten giñan beakin, oso majuak zian'e denak e? Baiño denak zorrotz e?
- Sermoi bildurgarriya.
- Bai, dena inpernuba, dena pekatuba, dena inpernuba, dena holaxe zan. [...] hil zan aurreko urtietan, ez dakit ba ze urtetan izango zan, juten zian baita're mixiyuak o zianian, ba, o jesuiteta o kaputxinueta o... Eta askotan, ba, anaiyai esaten ziyon, semiai, seme zaharrenai, "baiño, baiño, baiño zer da hau? dena pekatua!", "aita, lasai eon zaitez, eon zaitez lasai, lasai eon zaitez...". Eta hola aitzen zitayon semia. "Ez, ez, horrengatikan lasai eon, lasai, zu jatorra zea" ta ez dakit zer ta hola. Baiño azkeneako gure aitak ez dakit izugarrizko graziya iten zigun: "iñork ez du esaten oain inpernuben kontuik! Ze pasatzen da, inpernuba itzali in al da?"

22. Dotrina eta Pazkoazkoa; otoitzak

- **Erref:** DON-132/044
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:06:44. **Bukatu:** 01:09:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Dotrina ondo jakin beharra. Amak komunean sartu zuen, zigortuta, dotrina ez zekielako. Igeldoko apaizak. Don Migel Soroa. Pazkoazkoa egiteko txartelak

eskuratzeko, dotrina jakin behar. Jaungoikoari buruzko esaldia eta aitaren noiz egin.

23. Osaba Mateorekin otoitzean

- **Erref:** DON-132/046
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:10:19. **Bukatu:** 01:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Osaba Mateorekin erreztatzen zuten umetan arrosarioa. Osabak latinez erreztatzen zuen, eta erdaraz ere ez zekien.</p>

Transkripzioa

- Zuek etxien errosariyua amakin erreztatzen zenuten?
- Amakin ez zeatik denboak ez zun /etzun/ izaten, baña osa Matteokin bai. Osaba Matteokin juten giñan gora ez? Nik ustet... gure amak e... pakia ematen gendun ordun ta bialdu iten zigun gora. Eta han.
- Ganbaran?
- Hemen, bai kuartuetan o...
- Kuartuetan?
- Bai.
- [...]
- Osaba Matteo, berriz, gizajuak... eztakit, ba, hoi eztakit seguru... hoi ondo aterako zaiten, baño bakizu... ordun letaniya "Kyrie eleison. Christe eleison. Kyrie eleison. Christe..." holaxe aitzen. "Sancta Maria. Sancta Dei Genitrix. Sancta Virgo Virginum. Sancta [...]" nola iten zan. "Virgo potes. Virgo clemens. Virgo fidelis... Speculum iustitiae. Sedes sapientiae, Causae nostrae laetitiae. Vas spirituale. Vas honorabile. Vas insigne devotionis".
- Eta iya erderaz ez zakin /etzakin/.
- Ez, erderaz ez zakin /etzakin/.
- Latiñez ondo, baña erderaz batez...
- Hara! Ikusten det /ikustet/ hasiko banitzake gauza guztik esaten... Holako liburu bat!

24. Bi anaiak apaiz: bata baserriarrekin, beste seminarioan arduradun

- **Erref:** DON-132/049
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 01:13:01. **Bukatu:** 01:16:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Apaizak asko joaten ziren Leku Ederrera. Bi anaiak apaiz. Etxean egon behar

izan dute neskek. 33 urte arte etxean laguntzen egon zen anaietako bat. Parisera joan zen gero. Hantxe apaiztu zen. Beste anaia baserritarrei laguntzen ibili da, Lurgintzan.

25. Apaizei berorika, bestela zuka

- **Erref:** DON-132/050
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:16:23. **Bukatu:** 01:17:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

Apaizei berorika, amak izebari ere bai. Gainontzean, beti zuka.

26. Demetrio apopiloaren kontuak

- **Erref:** DON-132/052
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:17:50. **Bukatu:** 01:19:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

Demetrio apopiloaren kontuak. Eskekoak joaten ziren etxera. Gurrutxaga familiakoak. Demetriok bere buruaz beste egitera zihoala esan zuen behin, eta broma zen.

27. Igeldoko jatetxeak

- **Erref:** DON-132/054
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 01:19:45. **Bukatu:** 01:22:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Igeldoko jatetxea. Buenavista, Mendizorrotz eta beraiena. Tiro-pitxoian ere emango zuten igual. Rekondokoak esnea biltzen hasi ziren, eta partitzen. Ezeizaneko taberna. Monte Igeldoko jatetxea eta dantzak.</p>

28. Antzezlanak Igeldon; 'Neskamearen marmarrak'

- **Erref:** DON-132/055
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 01:22:16. **Bukatu:** 01:27:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Izaba Lorenek antzerkia egiten zuen. Berak antolatzen zituen. Euskaraz izaten ziren. Neskamearen marmarrak antzezlanak. Txokolateneko Manolik antzeztu zuen. Antzerkia non egiten zuten, sindikatuan.</p>

29. Hamabost ordu lanean; bezeroen kontuak

- **Erref:** DON-132/056
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 01:27:16. **Bukatu:** 01:30:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Eguneroko bizimodua nolakoa zen. 15 ordu egiten zituzten lanean. Amak ixten zuen atea. Jokoan zebiltzanak bidaltzen zituen hark. Ixidroren kontuak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com